12. Galer. akzio ta oblig. propioekin egindako eragik. <i>Pérdidas por operac. con acciones y oblig. propias</i>	----	----	11. Kap. diru-lag. ta ek. emaitz. esleit. beste batzuk <i>Subv. cap. y otras transf. al rtdo. del ejercicio</i>	130.414	130.414
13. Gastu bereziak <i>Gastos extraordinarios</i>	----	----	12. Diru-sarrera bereziak <i>Ingresos extraordinarios</i>	----	----
14. Gastu eta galerak, beste ekitaldi batzuetakoak <i>Gastos y pérdidas de otros ejercicios</i>	----	----	13. Diru-sarr. ta mozkinak, beste ekitaldi batzuetakoak <i>Ingresos y beneficios de otros ejercicios</i>	----	----
IV. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK RESULTADOS EXTRAORDINARIOS POSITIVOS	130.414	130.414	IV. APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK RESULTADOS EXTRAORDINARIOS NEGATIVOS	----	----
V. ZERGA AURREKO MOZKINAK BENEFICIOS ANTES DE IMPUESTOS	----	----	V. ZERGA AURREKO GALERAK PERDIDAS ANTES DE IMPUESTOS	----	3.192.077
15. Sozietateen gaineko zerga <i>Impuesto sobre Sociedades</i>	----	----			
16. Beste zerga batzuk <i>Otros impuestos</i>	----	----			
VI. EKITALDIKO EMAITZA (MOZKINAK) RESULTADO DEL EJERCICIO (BENEFICIOS)	----	----	VI. EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK) RESULTADO DEL EJERCICIO (PERDIDAS)	----	3.192.077

Neiker, S.A.

KAPITAL AURREKONTUA PRESUPUESTO DE CAPITAL




USTIAPEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE EXPLOTACIÓN



2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI



MENDIKOI, S.A.

MENDIKOI, S.A.

1. SARRERA

Mendikoi Elkarte Publikoa Nekazaritza Garapenerako Institutua, EA E.A.E.ko landa ingurunearen sustapena eta formazioa helburu duen Zentru Integrala da. Bere iharduera 1990. urtean hasi zen eta lau urte beranduago sozietate mugatu bezala eratu zen (1994-02-10). Sortu zen elkarte berri honen xedea garbia zen: euskadiko landa eremuan lan eta ekonomia iharduerak sustatzeko bitartekari lanak egin. Beti, ere, argi edukita horrela bultzatutako hazkundera orekatua eta iraunkorra izan behar zuela.

Elkarte Anonimoa sortu eta gero (1996-06-07), Mendikoi %100 garai hartako Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren pean jardungo zuen enpresa publiko batean bihurtu zen (1997-02-18).

Beranduago, Mendikoiri nekazal formazioaren zerbitzua gestionatzeko ardura emango zaio (Dekretua 154/1994-06-24); horretarako, Eusko Jaurlaritzak honako lokal hauek uzten dizkio:

- Arkauteko Nekazal Eskola.
- Derioko Nekazal Eskola.
- Fraisoroko Nekazal Eskola.

Gaur egun bere kapital soziala 1.315.952 eurokoa da.

Elkartearen Estatutuek diotenez, Mendikoiren xede soziala, hasera-haseratik, hauxe da:

- Nekazal Garapenerako beharrezkoak kontsideratzen diren iharduerak garatu, bai formakuntza eskainiz, bai entitate publiko nahiz pribatuen sustapen eta aholkularitza lanak eginez.
- Oro har, xede soziala garatzeko beharrezkoak diren edozein iharduera osagarri burutu; iharduera hauek, industri, komertzio edo finantziario arloekin erlazionatuak daudenak dira, eta ondasun higigarriei nahiz higieizinei buruzkoak gainera.
- Xede berdina edo antzekoa duten beste elkarteetan parte hartu, Mendikoik bere xedea garatu dezan; horretarako, bide bat baino gehiago erabiltzen ditu: akzioak harpidetu, elkarteen eraketan parte hartu, akzioak edo partzipazioa gehitu, edo edozein tituluren bidez akzioak eskuratu.

Gaur egun Mendikoik landa inguruarekin zerikusia duten honako bat elkarte pribatuetan parte hartzen du:

- Biomendi, S.A. (Araba). Sueroa ekoizten du. Bere kapital soziala 1.454.942 eurokoa da, eta Mendikoiren partehartzea %5,87koa da.

2. ENTITATEAREN IHARDUERA OROKORRAK

1. INTRODUCCION

La Sociedad Pública Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, S.A. es un Centro Integral para la Formación y Promoción del Medio Rural de la C.A.P.V., que aún iniciando su actividad en 1990, fue constituida, con la forma jurídica de Sociedad Limitada, el 10 de febrero de 1994 con el objetivo básico de servir como instrumento para la promoción de actividades económicas y de empleo que redunden a favor del desarrollo equilibrado y sostenible del medio rural vasco.

Tras convertirse en Sociedad Anónima el 7 de junio de 1996, el 18 de febrero de 1997 Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, S.A. se transforma en empresa pública dependiente 100% del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Por medio del DECRETO 154/1997, de 24 de junio, se adscribe la gestión del servicio de formación agraria a la Sociedad Pública Mendikoi, S.A., poniendo el Gobierno Vasco hasta tanto dure la adscripción del servicio para su utilización los locales que a continuación se describen:

- Escuela Agraria de Arkaute.
- Escuela Agraria de Derio.
- Escuela Agraria de Fraisoro.

Actualmente su capital social es de 1.315.952 euros.

Como queda plasmado en los estatutos de la Sociedad, el objeto social de la misma desde su constitución consiste en:

- El desarrollo de cuantas actividades se consideren necesarias en orden al Desarrollo Rural, tanto en el área de Formación como en el de Promoción y Asesoramiento a Entidades Públicas y Privadas.
- En general, todas las actividades complementarias que se deriven o sean convenientes para el desarrollo del objeto social, de carácter industrial, comercial o financiero, tanto mobiliarios como inmobiliarios.
- La participación en otras sociedades de idéntico o análogo objeto, para el desarrollo del propio objeto de esta Sociedad, mediante la suscripción de acciones o participaciones en la fundación o aumento de las mismas o la adquisición de ellas por cualquier título.

Actualmente, la sociedad participa a su vez en una sociedad privada relacionada con el medio rural, la cual analizamos a continuación:

- Participación en Biomendi, S.A. (Araba). Empresa dedicada a la producción de suero. Su capital social es de 1.454.942 euros, siendo la participación de Mendikoi, S.A. del 5,87%.

2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

1997-2000 Euskal Landa Ingurunearen Garapenerako Planean aurreikusitako iharduera programen arabera, E.A.E.ko Landa Ingurunearen Prestakuntza eta Sustapenerako Zentru Integrala – MENDIKOI, S.A. eratzen da, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpekota den Sozietate Publiko bezala. Enpresa hau helburu batekin sortzen da: aktiboki laguntzea lehen sektorean eta euskal landa eremuetan berri eta garapen integrala burutu beharri erantzuten.

Erronka hori aurre egiteko MENDIKOIk nekazaritzako profesionalei, gaur egungoei nahiz etorkizuneko, lanbide formazio tekniko eskainiko die, eta baita inbertsioak erakarri nahiz jarduera berriak sortzeko behar duten informazio, formazio, laguntza eta aholkularitza profesionala ere; inbertsio eta jarduera horiei esker Euskadiko landa eremuan lanpostuak sortuko dira eta bertan gauzatuko den garapena egokia izangoda. MENDIKOIk, era berean, udal nahiz Mendi Nekazaritza Elkarteetako ordezkari formazioa eta aholkularitza proposamenak eskaintzen ditu. Proposamen horiek landa eremuetako bizi kalitatea hobetzeko dira. Horrez gain, erakunde ezberdinei gai hauen inguruan egiten dizkien proposamenak zehazten eta planifikatzen ditu.

Ekimen Estrategia

MENDIKOI, S.A.ren ekimen estrategia oinarritzko puntu hauen arabera eratzten da:

- Nekazaritza sektorean etorkizunean eta gaur egun dauden profesionalen HEZIKETA.
- Nekazaritza sektoren ENPRESARI PENTSAMOLDEAREN SUSTAPENA eta KULTURA SAITSUA lortuko duen garapena, Landa eremuetako biztalen artean.
- Euskal Herriko landa lurraldeak gizarte- eta ekonomi mailan garatu eta suspertzeko helburua duen edozein sektore edo iharduera ekonomikoren barne aurkitzen den ENPRESEN SUSTAPENA eta LANPOSTUAK SORTZEA.
- Landa eremuetako BIZI KALITATEA HOBETZEKO jarduerak garatzen laguntzea.

MENDIKOIREN iharduereen garapenean, kalitatea, eraberrikuntza eta eraginkortasuna lehenetsun bezala kontsideratzen dira, honela sektore honetan aurkitzen diren hainbat erakunde eta pertsonen erantzun egokia emanez, hala nola, profesionalak, sartu nahi diren gazteak, enpresariak eta enpresari berriak, baserri inguruko biztanleria, eta baita euskal landa ingurunea sozio-ekonomikoki sustatzeko laguntzen ari diren erakundeak.

Iharduera Arloak

MENDIKOI S.A.k honako ARLO hauetan dihardu:

- HEZIKETA
- GARAPENA
- LANDA SUSTAPEN ETA BIZI KALITATEA

A) Heziketa Arloa

De acuerdo con los programas de actuación previstos en el Plan de Actuación para el Desarrollo del Medio Rural Vasco 1997-2000, se constituye el Centro Integral para la Formación y la Promoción del Medio Rural de la C.A.P.V. MENDIKOI, S.A., bajo la forma de una Sociedad Pública dependiente del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, con la misión de contribuir activamente a la satisfacción de las necesidades de innovación y de desarrollo integral tanto del sector primario como del medio rural vasco.

MENDIKOI pretende responder a este reto ofreciendo formación técnico-profesional a los activos actuales y futuros del sector agrario, así como información, formación, apoyo y asistencia profesionalizada para la creación de nuevas actividades y atracción de inversiones que contribuyan al desarrollo armónico y a la creación de empleo en el medio rural del País Vasco. Asimismo forma y asesora a representantes de Ayuntamientos, Asociaciones de Agricultura de Montaña y define y planifica propuestas a plantear a las distintas entidades en materia de Mejora de la Calidad de vida del medio rural.

Estrategia de Actuación

La estrategia de actuación de MENDIKOI, S.A. está orientada a través de estas líneas básicas:

- La FORMACION de los profesionales actuales y futuros del medio rural.
- El FOMENTO DE UNA MENTALIDAD EMPRESARIAL en el sector agrario y la animación para el desarrollo que determine una CULTURA EMPRENDEDORA entre la población del medio rural.
- La PROMOCION DE ACTIVIDADES O INICIATIVAS en cualquier sector de actividad económica que contribuya a la revitalización y al desarrollo socioeconómico de las zonas rurales del País Vasco y el asentamiento de la población.
- Apoyo al desarrollo de actuaciones que favorezcan la MEJORA de la CALIDAD de VIDA del medio rural.

En el desarrollo de sus actividades priman los criterios de calidad, innovación y eficiencia, dando respuesta real a los requerimientos de los profesionales del sector, de los jóvenes que desean incorporarse al mismo, de las empresas y de los nuevos empresarios, del conjunto de la población rural, así como de las instituciones y organismos involucrados en la revitalización socio-económica del medio rural vasco.

Areas de Intervención

MENDIKOI, S.A. interviene en las siguientes AREAS:

- A) FORMACION
- B) PROMOCION
- C) DESARROLLO RURAL Y CALIDAD DE VIDA

A) Area de Formación

MENDIKOI S.A.ren Heziketa arloko helburuak ondorengoak dira: landa inguruneke langileak profesionalizatzea, gazteen heziketa, honela nekazaritza sektorean, datozen hurrengo belaunaldien txandaketa suspertzeko eta pentsamolde eta kultura saiatsua sustapena landa inguruneke biztanleriaren artean.

Heziketarako ekimena hiru Lurralde Historikoetan garatuko da bertako lau Zentroyen bitartez: Maeztu (Araba), Arkaute (Araba), Derio (Bizkaia) eta Fraisoro (Gipuzkoa).

Heziketa Arautua

Eskaintzen den laborantza heziketa LOGSE hezkuntza-sistemari egokitzen zaio. Sistema berri honek lehengo Lanbide-Heziketa ordezkatu du, gaur egungo erdi eta goi mailako hezkuntza zikloengatik.

Zentroyen Hezkuntza Programak azalpen teorikoak praktikarekin osatzeko aukera eskaintzen du. Praktika hauek bai Zentro bertan eta baita ustiatzeetan eta elkarlanean parte hartzen duten enpresatan ere egin daitezke, honela ikasleak benetako ingurunean kokatzen direlarik eta era berean gero eta lehiakorragoa den nekazaritza sektorean lanean hasteko hezkuntza egokia lortzen dutelarik.

MENDIKOIREN lau Zentroyen bitartez heziketa eskaintza zabala, plurala eta kalitatezkoa lortu da, nazioarteko lankidetzat hitzarmenetan eta beste herrialde batzuekin trukeetan parte hartzen delarik. Guzti horretarako instalazio eta ekipamendu egokienak ditugu.

Heziketa Jarraia eta Inentsiboa

Heziketa plangintza hau nekazaritza sektoreko profesionalen eta landa inguruneke loturiko iharduerei zuzenduta dago (lanbide berriak). Erakunde Profesionalen, Kudeaketa Zentroyen bidez etab. lortzen den sektorearekiko eta landa ingurunearekiko erlazio jarraia eta zuzenak zera eskaintzen du, heziketa mailan dauden beharrak antzeman eta prospekzioa jasotzea. Bai lehen sektorean, bai landa eremuetako biztanleengan.

Halaber, gure antolamendurako malgutasunak nekazaritza sektoreko eskakizueni erantzun bizkor eta egokitu ematea posible egiten du. Gainera, eskakizunen arabera, ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak etab., gure instalazioetatik kanpora antolatzeke ere prest gaude.

Lan-poltsa

Enpresa, Ikerketa-Zentru, Unibertsitate eta Erakunde Publikoekin elkarlana.

MENDIKOIREN Arkaute, Derio eta Fraisoroko Zentroak lanean hasteko zerbitzua eskaintzen dute eta zerbitzu honen bitartez gure ikasleei lanean hasteko ateak irekitzea errazten zaie, enpresetatik jasotzen diren lan eskaerei erantzuna emanez.

MENDIKOIREN elkarlanek zera eskaintzen dute:

- Ikasleek praktikak egitea.
- Ikasle-, Teknikari- eta irakasle- trukea.

Los objetivos del Area de Formación de Mendikoi, S.A. son: la profesionalización de los trabajadores del medio rural, la formación de jóvenes para promover el relevo generacional del sector agrario y el fomento de una cultura y mentalidad emprendedora en la población del medio rural.

La actividad formativa se desarrolla en los tres Territorios Históricos a través de las cuatro Centros de MENDIKOI: Maeztu (Araba), Arkaute (Araba), Derio (Bizkaia) y Fraisoro (Gipuzkoa).

Formación Reglada

La formación agraria impartida se adapta al sistema educativo LOGSE, que sustituye a la anterior Formación Profesional por los actuales ciclos formativos de grado medio y superior.

El Programa Académico de los Centros permite la complementación de exposiciones teóricas con la realización de prácticas, tanto en las propias Centros como en explotaciones y empresas colaboradoras, que sitúen a los alumnos en un contexto real, ofreciéndoles las mejores condiciones para su incorporación laboral a un sector agrario cada vez más competitivo.

Entre los cuatro Centros de MENDIKOI, se ha logrado configurar una oferta formativa amplia, plural y de calidad, participando en convenios de cooperación internacional y en programas de intercambio con otros países. Para todo ello se cuenta con las instalaciones y equipamientos más adecuados.

Formación Continua e Intensiva

Dirigida a profesionales del sector agrario y actividades vinculadas al medio rural (nuevas profesiones). La relación continua y directa con el sector y con el medio rural a través de Asociaciones Profesionales, Centros de Gestión, etc. permite una correcta detección y prospección de las necesidades formativas existentes, tanto en el sector primario como entre la población de las zonas rurales.

Asimismo nuestra flexibilidad organizativa permite una respuesta ágil y adaptada a los requerimientos del sector, estando abiertos a la organización de cursos, charlas y seminarios fuera de las propias instalaciones de los Centros en función de la demanda.

Bolsa de trabajo

Colaboración con empresas, Centros de Investigación, Universidades e Instituciones Públicas.

Los Centros de Arkaute, Derio y Fraisoro ofrecen un servicio integrado de inserción laboral, mediante el cual se facilita el acceso al mercado laboral a nuestros alumnos y alumnas, atendiendo a las ofertas de empleo realizadas por las empresas.

Las colaboraciones de MENDIKOI permiten:

- La realización de prácticas para los alumnos.
- El intercambio de alumnos, técnicos y personal docente.

- Gazteentzat etorkizun hobea duten irtenbideak bilatzea.
- Landa ingurunean ezarri daitezkeen negozioarako aukerak identifikatzea.
- MENDIKOIK zuzendutako enpresa proiektuentzat finantzaketa-baldintza hobek aurkitzea.
- Beste herrialde batzuekin esperientzia eta elkarlaneko proiektuak garapenean trukea.

Era berean, MENDIKOIREN instalazio guztiak, nekazaritza sektoreko eta euskal landa ingurune hainbat erakunderen topaleku bezala erabiltzen dira zenbait ekintza, hala nola bilerak, solasaldiak, ihardunaldiak etab. Burutzeko.

B) Sustatzeko Arloa

MENDIKOIREN enpresak sustatzeko arloaren helburua enpresak sortu eta erakartzea da eta baita euskal landa ingurunean lana sortzea ere.

Arlo honetako lana, alde batetik garapenerako ahalegin eta ekimen endogenoak (barneko sustapena) eta bestetik, landa inguruneko gizarte- eta ekonomi garapenerako bultzada suposa dezaketen kanpotik jasotzen diren aukerak (kanpoko sustapena) elkartzean datza.

Gaur egun, eskura dago landa eskualdeetan proiektuak aurrera eramateko interesa duten Ekintzaile Berrien Monitorizazio zerbitzua. Aipatu proiektuak beharrak atzematean iristen dira gugana. Eta beharrak atzematen ditugu Mendi Nekazaritza eta Landa Garapen Elkartearen laguntzaz. Elkarte horiek eskualde mailako entitateak dira.

Tradizioz, MENDIKOIK eskaini duen monitorizazioaren bidez landa eremuetan burutzeko enpresa proiektuei lagundu zaie; proiektu horiek era askotakoak dira (lehen sektorekoak, bigarrenengoak eta hirugarrenengoak). Bestalde, azken urteotan lehen sektorearekin zerikusi zuzena duten proiektuak monitorizatzen laguntzeko zerbitzua garatzen ari da MENDIKOI, EAEko lehen sektorean belaunaldi berriei bidea errazteko.

Bi kasuetan, MENDIKOItik hau eskaintzen diogu sustatzaileari:

- Landa inguruneko enpresen eta autoenpleguaren sustapenerako sentsibilizazioa eta hauek aurrera ateratzeko bultzada.
- Enpresari berriei zuzendutako heziketa, enpresen sorkuntza eta kudetari buruzkoa.
- Negozioaren Plana garatzeko banan-banako laguntza.
- Proiektua ezagutarazteko eta finantzaketa bilatzeko laguntza.
- Gerora, jarraipena eta aholkularitza.

Era berean, jarduerak atzemateko eta inbertsioak erakartzeko zerbitzua dago. Jarduera eta inbertsio horiek koherenteak izan behar dute burutzen direneko ingurumenarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin. Zerbitzuari esker erraztu egingo da Euskadiko landa eremuak suspertzeko bidea.

- La búsqueda de mejores salidas profesionales para los jóvenes.
- La identificación de oportunidades de negocio susceptibles de instalarse en el medio rural.
- La búsqueda de unas mejores condiciones de financiación para los proyectos empresariales monitorizados desde MENDIKOI.
- El intercambio de experiencias y el desarrollo de proyectos de cooperación con otros países.

Asimismo, todas las instalaciones de MENDIKOI se utilizan como punto de encuentro para los diferentes colectivos del sector agrario y del medio rural casco para la realización de diversas actividades como reuniones, charlas, jornadas, etc.

B) Area de Promoción

El objetivo del Area de Promoción de MENDIKOI es la creación y captación de empresas y la generación de empleo en el medio rural vasco.

Se trata de combinar esfuerzos e iniciativas endógenas de desarrollo con las oportunidades que procedentes del exterior pueden suponer un impulso al desarrollo socio-económico de las zonas rurales.

Actualmente, se ofrece un servicio de Monitorización de Nuevos Emprendedores interesados en la implantación de proyectos en las diferentes comarcas rurales, que llegan a nosotros principalmente a través de la captación de necesidades que realizamos en colaboración con las Asociaciones de Agricultura de Montaña y Desarrollo Rural; entidades de ámbito comarcal.

Tradicionalmente el tipo de monitorización que ha ofrecido MENDIKOI se ha centrado en el apoyo a proyectos empresariales de diferente naturaleza (sector primario, secundario y terciario) a implantar en el medio rural. Durante los últimos años, con el objetivo de favorecer al máximo el relevo generacional del sector primario de la CAV, se está desarrollando además un servicio de apoyo para la monitorización de proyectos directamente relacionados con el sector primario.

En ambos casos, desde MENDIKOI ofrecemos al promotor:

- Sensibilización y animación hacia la promoción empresarial y el autoempleo en el medio rural.
- Formación en creación de empresas y gestión empresarial dirigida a nuevos emprendedores.
- Asesoramiento individualizado para la elaboración del Plan de Negocio.
- Apoyo en el lanzamiento del proyecto y en la búsqueda de financiación.
- Seguimiento y asesoramiento post-lanzamiento.

Paralelamente, se desarrolla también un servicio de captación de actividades y atracción de inversiones coherentes con el entorno ambiental, social y económico del medio en el que se implanten, que contribuya a la consecución del objetivo de revitalización de las zonas rurales de Euskadi.

Dirulaguntza eta beste motako laguntzaz gain, landa inguruneak interesgarri suertatzen diren zenbait abantaila sahiatsu eskaintzen ditu, bai nekazaritzako elikagaien enpresak ezartzeko edo ingurugiro ezin hobean beraien enpresa kokatzea balioztatzen dutentzat.

MENDIKOIK zera eskaintzen du:

- Enpresei zuzendutako informazioa eta laguntza, beraien iharduera garatzeko ahalik eta tokirik egokiena aurki dezaten (industri lurzorua, pabilioiak).
- Nekazaritza ingurunean enpresa kokatzeko ematen diren mota guztiko laguntza eta abantaila buruzko informazioa eta aholkua.
- Bitartekaritza tokian tokiko entitateekin.

C) Landa garapenaren eta bizi kalitatearen arloa

MENDIKOIREN helburu nagusia, landa garapenari dagokionez, "landa eremuetako biztanleak finkatzea eta gehitzea" da.

Gaur egun beharrezkoa da landa garapenari zuzendutako ikuspegi bat ezartzea eta ikuspegi honi dagokionez, garapen ekonomikoaz gain albo-ideiek ere, adibidez ingurugiroa, bizitza kalitatea, azpiegiturak, etab. izugarritzko garrantzia dute. Beste alderdi hauek hain garrantzitsuak dira, lurralde bakoitzak, garapenari dagokionez, duen lehia-maila erabakiko dutela.

Euskadin lehen zegoen lurralde oreka berreskuratzeko landa eremuan mugimendua sortu eta bertan jendea bizitzen jarri dadin lortu beharra dago; baina landa eremua jendearentzat bizitzeko erakargarria izan dadin, nahitaezkoa da bertako bizikaltatearen maila gaur egungo gizarteak eskatzen duen bezalakoa izatea. Horretarako, MENDIKOIK, landa eremuetan ekonomia dibertsifikatzen laguntzeaz gain, gai hauekin zerikusia duten alderdiak lantzen ari da: azpiegituren hobekuntza, bizi kalitatearen hobekuntza (etxebizitza, gasifikazioa, teknologia berriak...) eta erakundearteko lankidetzara landa eremuei zuzendutako jardueretan (Landa Garapeneko 19/98 Legeari jarraiki).

Europako Programak

Landa garapenaren arlo horretan, Europako Programen zerbitzua daukagu. Programa horietan kudeatzeko tresnak diseinatzen eta lortzen lan egiten da, landa garapenaren gainean proposatutako jarduerak burutzen laguntzeko.

Eskualdeko Koordinazioa

Landa Garapeneko Programetan aitatzen diren beharrei erantzuteko eskualde bakoitzean burutu beharreko jarduerak planifikatzen dira, eta planifikazio horretan landa garapeneko agenteak ere tartean sartzen dira.

3. 2001.ean GARATU DIREN IHARDUERA NAGUSIAK

A.- FORMAKUNTZA ARLOA

- Informazioaren kudeaketa hobetzeko baliabideak jartzea.
- 98/01 Nekazaritza Formazio Plana garatzea eta ebaluatzea.

Más allá de las ayudas y subvenciones, el medio rural presenta interesantes ventajas competitivas para el asentamiento de empresas agroalimentarias o de otro tipo que valoren la localización en un entorno ambiental inmejorable.

MENDIKOI ofrece en este sentido:

- Información y asistencia a empresas en la búsqueda de la localización más adecuada para su actividad (suelo industrial, pabellones, etc).
- Información y asesoramiento sobre ayudas y ventajas para la instalación de la empresa en zona rural.
- Intermediación con entidades locales.

C) Area de desarrollo rural y calidad de vida

El objetivo final de MENDIKOI en materia de Desarrollo Rural es "la fijación e incremento de la población rural".

Actualmente es preciso aplicar un enfoque integrado al Desarrollo Rural, en el que los aspectos colaterales al puro desarrollo económico, como son el medio ambiente, la calidad de vida, las infraestructuras, etc. adquieren una importancia tal que van a determinar la posición competitiva de cada territorio ante el desarrollo.

Con el fin de lograr un reequilibrio territorial de nuestro País, con un medio rural vivo y atractivo para establecer en él un proyecto de vida, es preciso que sus estándares de calidad de vida se aproximen a los niveles demandados por una sociedad moderna. Para ello, desde MENDIKOI, además de apoyar la Diversificación económica de las zonas rurales, se está trabajando en aspectos relacionados con la Mejora de Infraestructuras, Mejora de la Calidad de Vida (vivienda, gasificación, Nuevas Tecnologías...) y la cooperación interinstitucional en las actuaciones para el medio rural (en aplicación de la Ley 19/98 de Desarrollo Rural).

Programas Europeos

Dentro de este área de Desarrollo Rural, contamos con el servicio de Programas Europeos, que trabajan en el diseño y la consecución de herramientas de gestión que favorezcan la ejecución de las actuaciones propuestas en materia de D.R.

Coordinación Comarcal

En base a los Planes de Desarrollo Rural y como respuesta a las necesidades en ellos recogidas, se trata de planificar las actuaciones a realizar en cada comarca, transmitiendo e involucrando a los Agentes de Desarrollo Rural en la participación activa para el Desarrollo Integral de la Comarca.

3. PRINCIPALES ACTUACIONES DESARROLLADAS DURANTE EL 2001

A.- AREA DE FORMACIÓN

- Establecer medios para mejorar la Gestión de la información.
- Desarrollo y Evaluación del Plan de Formación Agraria 98/01.

- MENDIKOIren Hobekuntza Planaren prozesua martxan jartzea.
- Lanbide Prestakuntza Berrien Programa garatzea.
- Lan Arriskuen Programa aplikatzea.
- Curriculum Diseinuak berrikustea.
- Lana aurkitzeko zerbitzua. Lehen sektorearekin zerikusia duten lan eskaerak eta eskaintzak kudeatzea.

A.1. Formakuntza Arautua

Formazio Arautuaren Programa garatzea, 00-01 ikasturterako jarritakoa.

ARKAUTE

- Lanbide Hastapen Ikastaroa (LHI).
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa amortizatzea.
- Erdi Mailako Formazio Zikloak:
Lorezaintzan teknikaria.
Ustiapen estentsiboan teknikaria.
- Goi Mailako Formazio Zikloak.

Goi Mailako teknikaria, nekazaritza eta abeltzaintza enpresen kudeaketan eta antolakuntzan.

DERIO

- Erdi-Mailako formazio-Zikloak:
Ustiategi intentsiboetan Teknikaria.
Lorazaintzan Teknikaria.
- Goi-Mailako formazio-Zikloak:
Natur eta paisai baliabideen antolakuntzan eta gestioan
Goi-Teknikaria.

FRAISORO

- Erdi-Mailako formazio-Zikloak:
Abere ustiapeneta Teknikaria.
Lorazaintzan Teknikaria. B. Maila Ezarketa.
- Goi-;Mailako formazio-Zikloak:
Nekazaritza eta Abeltzaintza enpresen antolakuntzan eta gestioan Goi-Teknikaria.
- 01-02 ikasturterako programa diseinatzea eta garatzea.
- Lan aurkitzen laguntzeko programa.
- Landa eskolen programa.

- Iniciar el proceso de Plan de Mejora de MENDIKOI.
- Avanzar en el desarrollo del Programa de Nuevas Cualificaciones Profesionales.
- Aplicación del Programa de Riesgos Laborales.
- Revisión de Diseños Curriculares.
- Servicio de Inserción Laboral. Gestión de demandas y ofertas de empleo relacionadas con el sector primario.

A.1.- Formación Reglada

Desarrollo del Programa de Formación Reglada establecida para el curso 00-01:

ARKAUTE

- Curso de Iniciación Profesional (CIP).
- Amortización del Bachiller de Ciencias de la Naturaleza y la Salud.
- Ciclos Formativos de Grado Medio:
Técnico en Jardinería.
Técnico en Explotaciones Extensivas.
- Ciclos Formativos de Grado Superior.

Técnico Superior en Gestión y Organización de Empresas Agropecuarias.

DERIO

- Ciclos formativos de Grado Medio:
Técnico en Explotaciones Agrícolas Intensivas.
Técnico en Jardinería.
- Ciclos formativos de Grado Superior:
Técnico Superior en Gestión y Organización de los Recursos Naturales y Paisajísticos.

FRAISORO

- Ciclos formativos de Grado Medio:
Técnico en explotaciones ganaderas.
Técnico en Jardinería. Implantación del Modelo B.
- Ciclos formativos de Grado Superior:
Técnico superior en gestión y organización de empresas agropecuarias.
- Diseño y desarrollo programa para el curso 01-02.
- Programa de apoyo a la inserción laboral.
- Programa de escuelas rurales.

- Elkartruke eta lankidetzaz jarduerak sustatzea, nekazaritza formazio eta landa garapen zentroekin eta beste entitate sektorial batzuekin.
- Formazio Arautuaren inguruan zentroak duen eskaintza zabaltzea eta formazio hori sektoreko beharretara egokitzea.

A.2. Etengabeko formakuntza eta Intentsiboa

- Formazio jarduerak planifikatzea, programatzea eta garatzea, sektoreko profesionalentzat eta landa eremuetako biztanleentzat.
- 2001ko Etengabeko Formakuntzaren programazioa eta garapena.
- Formakuntza ez arautuko ikastaroak. Ikastaroen ikastaro 190 emango dira eta 3250 pertsonak parte hartuko dute. Eztabaida-leku sektorialak, bertako nahiz kanpoko jakitun eta profesionalekin.
- Gestio-kooperatiba eta elkarteekin koordinazioa, sektorearen beharrak ezagutzeko.
- Etengabeko Formakuntzako eskaintzaren hedapena; horretarako, liburuskak argitaratzeaz gain, komunikabideetan agerrialdiak egingo dira.
- Formakuntza intentsiboarekin jarraitu, inolako formakuntza teknikorik jaso gabe nekazaritzari heldu dioten gazteei tratamendu berezi bat emateko; baita ere, graduatu-ondoko formazioa eskaintzeko, bai, hezkuntza arautuaren barruan, nekazal-gaietan erdi-mailako zikloa burutu dutenei, bai, beste formazio arloa tik etorrita, bere etorkizuna nekazaritzan ikusten dutenei.

Ondorengo ikastaro hauek antolatuta dira:

Nekazalturismoa
Nekazaritza Ekologikoa
Egurraren 1. transformazioa
Horto-frutagintza Trinkoa
Esne behien ekoizpena

Eta laguntzen jarraitu zaie bai Artzain Eskolari, bai Ardogintza Eskolari. Eskola horiek formazio ikastaro eskaintza zabala dute, dagozkien azpisektoreetako profesionalentzat.

Bestalde, Kirol Zelaien Goi Eskola jartzea babestu da. Eskola horren lehen ikasturtea aurtengoa izan da. Bestalde, Eskola horretan espezializazio ikastaroa eman da, kirol zelaien eraikuntzaren, mantentze lanen eta kudeatzearen inguruan.

- Benetako eskaerari erantzun dion formazioa eskaintzea:
Lan-merkatuaren prospekzioa egin eta sektorearekin etengabeko hartu-emanak eduki; eta hori helburu batekin: merkatuak zer nolako prestakuntza eskatzen duen ikusi eta falta diren arauak ezagutu.

- Promover acciones de intercambio y colaboración con otros centros de formación agraria y de desarrollo rural y otras entidades sectoriales.

- Ampliar la oferta del centro en materia de Formación Reglada y adaptarla a las necesidades del sector.

A.2.- Formación Continua e Intensiva

- Planificación, Programación y desarrollo de acciones formativas para profesionales del sector y los habitantes del medio rural.
- Programación y desarrollo de la Formación Continua del año 2001.
- Impartición de cursos de formación no reglada. El número de cursos a impartir es de 190 con una participación de aproximadamente 3250 personas., Organización de foros sectoriales, tanto con personal propio como con profesionales y expertos del exterior.
- Coordinación con las distintas asociaciones y cooperativas de gestión de cara a conocer las necesidades del sector.
- Divulgación de la oferta de formación continua: edición de folletos y aparición en medios de comunicación.

- Se continúa la Formación Intensiva, con el fin de dar un tratamiento específico a los jóvenes que se incorporan a la actividad agraria sin haber recibido una formación técnica, así como proporcionar una adecuada formación de post-grado más especializada y práctica dirigida bien a aquellos alumnos que hayan cursado Ciclos Medios de temáticas agrarias en Formación reglada, o bien provenientes de otras áreas formativas contemplen su futuro profesional en el sector agrario.

Durante este año, se han desarrollado los siguientes cursos:

Agroturismo
Agricultura Ecológica
1. Transformación de la madera
Hortofruticultura Intensiva
Producción Vacuno de leche

Y se ha continuado apoyando tanto a la Escuela de Pastores como a la de Vitivinicultura, que desarrollan una importante oferta de cursos de formación dirigidos a los profesionales de cada subsector al que representan.

Por otro lado se ha apoyado la creación de la Escuela Superior de Céspedes Deportivos, que durante este año ha iniciado la impartición del primer curso de Especialización en Construcción, Mantenimiento y Gestión de Céspedes Deportivos.

- Adecuación de la oferta formativa a la demanda real:
Prospección del mercado laboral y contacto permanente con el sector al objeto de conocer la evaluación de los perfiles demandados en el mercado de trabajo y las necesidades Normativas.

Nekazaritza profesionalen formazioaren datu basea eguneratzea, formazio beharrak identifikatzeko.

Mahai sektorialetan eta I+Gko tekniketan parte hartu.

Kanpoko nekazarien formakuntzarako zentroekin hartu-emanak izan.

- EAEko nekazaritza sektoreko lanbide prestakuntza diseinatzeko elkarlanean jarraitzea Lanbide Prestakuntzaren eta Formazioaren Euskal Erakundearekin.
- EHUekin elkarlanean, Landa garapena eta bizi kalitatea-ri buruzko ikastaroa antolatzea. Ikastaro hori EHUko udako ikastaroa da, eta landa garapeneko egungo nahiz geroko teknikariei eta/edo profesionaleri dago zuzendua.

B.- SUSTAPENAREN ARLOA

- EAEko landa eremuetan garatzekoak diren proiektuen sustatzaileek eskatzen dutena aintzakotzat hartu eta lagundu:

Proiektu eta sustatzaileen analisia.

Enpresak sortzeko ekimenak sustatzea eta babestea, kontuan hartuta sustatzaile bakoitzaren beharrei banan-banan erantzun behar zaiela.

Laguntzak izapidetzen laguntzea (batik bat EREIN Programarekin zerikusia dutenak).

- Sustapen tresnak kudeatzea eta diseinatzea, sustatzaileekin harremanak errazteko eta eskura jartzen dugun zerbitzuen eskaintza hobetzeko.

Aplikazio informatikoa garatzea, sustatzaileen aholkularitza zerbitzua hobetzeko.

- Sustapen zerbitzuaren eskaintza hobetzea, batetik MENDIKOI, SAn horretan lan egiten duten langile gehiago jarri eta, bestetik, Formazio Zentroetako langile espezializatuak lehen sektoreko proiektuetan sartuz.

MENDIKOIko langileak formatzea, proiektuak monitorizatzeko.

Erakundeekin akordioak sinatzea, inbertsioetarako laguntzen kontzesioa sustatzaileen monitorizazio programekin lotzeko.

- Giza baliabideekin zerikusia duten beharrak aztertzeke eta atzemateko programa diseinatzea, EAEko landa eremuetarako, "BERPIZTU Programa".
- EAEko landa eremuetako udalen, elkarleen eta abarren elkarlan eskaerei erantzutea, proiektu berriak aztertzeke eta martxan jartzeko: Elkarlan Hitzarmenak sinatuta, proiektuak garatzeko.

C.- LANDA GARAPENA

Actualización de la base de datos de formación de profesionales agrarios de cara a identificar necesidades Formativas.

Participación en las Mesas Sectoriales y Técnicas de I+D.

Relación con centros de formación agraria del exterior, especializados tanto en Formación Reglada como Continua.

- Continuar la colaboración para el diseño de las cualificaciones profesionales del Sector Agrario para la CAPV con el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional.
- Colaboración con la UPV en la organización de un curso sobre " Desarrollo Rural y Calidad de Vida" enmarcado dentro de los cursos de verano de la UPV y dirigido tanto a los actuales como a los futuros técnicos y/o profesionales del desarrollo rural.

B.- AREA DE PROMOCIÓN

- Atender y canalizar las demandas de promotores con proyectos de desarrollo en las zonas rurales de la CAPV:

Análisis de proyectos y promotores.

Animación y apoyo de las iniciativas de creación de empresas, respondiendo de forma individualizada a las necesidades de los promotores.

Apoyo en la tramitación de ayudas (principalmente las relacionadas con el Programa EREIN).

- Gestión y diseño de herramientas de promoción que faciliten la relación con los promotores y mejoren la oferta de servicios que ponemos a su disposición:

Desarrollo de una aplicación informática que permite mejorar las condiciones del servicio de asesoramiento de los promotores.

- Mejorar la oferta del servicio de promoción, ampliando el personal de MENDIKOI, S.A. dedicado a ello, incorporando a personal de los Centros de Formación especializados en proyectos del sector primario.

Formación de Personal de MENDIKOI para la monitorización de proyectos.

Firma de acuerdos con Instituciones para vincular la concesión de ayudas para la inversión, a programas de monitorización de promotores.

- Diseño del Programa de análisis y captación de necesidades relacionadas con los RRHH para las zonas rurales de la CAV, "Programa BERPIZTU".

- Responder a las demandas de colaboración de los ayuntamientos, asociaciones, etc de las zonas rurales de la CAV para el análisis y la puesta en marcha de nuevos proyectos: firmados Convenios de Colaboración para el desarrollo de proyectos.

C.- DESARROLLO RURAL

EREIN. Animazioa, sentsibilizazioa eta proiektuen kudeaketa. Proiektu horiek dira EREIN Programak hartzen dituen EAEko landa eremuak garatzeko.

EAEko landa udalerrietarako Gasifikazio Plana garatzea, Nekazaritza eta Industria Sailak eta EUDEL euskal udalerrien elkarrekin sinatutako elkarlan hitzarmenari jarraiki.

Landa udalerrietan etxebizitzak sustatzeko proiektuak garatzen laguntzea (etxebizitzak jartzea, zaharberritzea, e.a.).

Landa udalerrietako bizi kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzea.

Teknologia berriak aplikatzea. Informazio zen komunikazio teknologia berrien aplikazioan oinarritutako proiektuen garapena bultzatzea.

Bideo-zaintza nekazaritza ustiapenetan aplikatzeko proiektu aitzindariak.

Landa garapenerako teknologia berriak jardunaldia antolatzea. Jardunaldiak ezagutzera emango du zer-nolako aukerak eskaintzen dituen ITB-en aplikazioak landa garapenean.

Teknikariak eta profesionalak formatzea, ITB-en erabileraren gainean.

ITB-ei buruzko formazio zerbitzuen proiektu aitzindaria, landa eremuetako biztanleei zuzendua. MENDINET.

Eskualde Koordinazioa Oraindik Eskualde Garapen Planak ez dituzten landa eskualdeentzat Plan horiek burutzeko lehen fasea planifikatzea eta garatzea.

- Durangaldea
- Lea-Aribai
- Uribe-Kosta
- Gernikaldea
- Deba-Garaia
- Deba-Behea
- Donostialdea
- Goierri

Elkarlana, landa udalerrietako garapen planak burutzeko:

Errezil- Bidegoian- Albiztur- Beizama.

Europako Programak

2001 urtean, DOCUP 5b eta LEADER II Komunitate Ekimena ixteko aplikazioa kontrolatu eta txostenak egin ditu. Bi programa horiek EAEko 5b helburu diren landa eremuak garatzen lagundu dute.

EREIN. Animación, sensibilización y gestión de proyectos para el desarrollo de las zonas rurales de la CAV vinculados al Programa EREIN.

Desarrollo del Plan de Gasificación de los municipios rurales de la CAV, en base a lo establecido en el Convenio de colaboración firmado entre los Departamentos de Agricultura e Industria y la Asociación de municipios vascos EUDEL.

Apoyo al desarrollo de proyectos de Promoción de Vivienda en municipios rurales (creación de vivienda, rehabilitación, etc.).

Animación de proyectos para la mejora de la calidad de vida de los municipios rurales.

Aplicación de Nuevas Tecnologías. Impulso al desarrollo de proyectos basados en la aplicación de las Nuevas Tecnologías de la Información y Comunicación.

Proyectos piloto de aplicación de video-vigilancia en explotaciones ganaderas.

Organización de las Jornadas sobre "Nuevas Tecnologías para el Medio Rural", de presentación de las posibilidades que ofrece la aplicación de las NTI dentro del Desarrollo Rural.

Formación de técnicos y Profesionales en base a la utilización de las NTI.

Proyecto piloto de servicios de Formación en base a NTI dirigido a la población del Medio Rural: MENDINET.

Coordinación Comarcal Planificación y desarrollo de la fase inicial de elaboración de los Planes de Desarrollo Comarcal de aquellas comarcas rurales en las que aún no se han elaborado:

- Durangaldea
- Lea-Aribai
- Uribe-Kosta
- Gernikaldea
- Deba-Garaia
- Deba-Behea
- Donostialdea
- Goierri

Colaboración en la elaboración de planes de desarrollo de municipios rurales:

Errexil- Bidegoian- Albiztur- Beizama.

Programas Europeos

Durante el año 2001 se ha constituido con el control de la aplicación y la elaboración de informes para el cierre del DOCUP 5b y la Iniciativa Comunitaria LEADER II. Ambos programas han contribuido al desarrollo de las zonas rurales objetivo 5b de la CAPV.

Behin 2000-2006 Landa Garapen Eramangarria Programa onartuta, EREIN laguntzen Dekretua argitaratu da, Euskadiko Landa Eremuak Sustatzeko eta Garatzeko. Landa Garapen Jasangarri Programak erregulatzen ditu Europako Elkarrekin Euskal Herriarentzat 2000-2006 urteetarako kofinantzatutako laguntzak. MENDIKOIk, 2001 urtean, 171 proiektuak kudeatu ditu Programa hori oinarri hartuta. Hori dela eta, 6.705.434 euro dirulaguntza jaso du eta 19.124.850 eurotako inbertsioa egin da zona horiek garatzeko.

Horrez gain, Europako Gizarte Fondoaren fondoak kudeatzeari ekin zaio. Fondo horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eskaini dizkio MENDIKOI, SAri, Animazio, Sentsibilizazio eta Formazio jarduerak garatzeko landa eremuetako biztanleentzat.

Aurten, Toki Ekintza Talde berria prestatzeko lanak hasi dira, baita Talde hori LEADER Plus Ekimen Berria aurkezteko Programa Proposamena ere.

Hirugarren, Euskadi-Aquitania Fondoaren barruan dagoen lurralde mugakideen arteko lankidetzaren proiektuarekin jarraitu du. Horrela, landa garapenarekin zerikusia duten gaiei buruzko mintegiak antolatu ditu, eta mintegi horietan bi lurralde horietako agenteek hartu dute parte. **Eta analisi lan bat garatzen laguntzen da, landa eremuetarako Baliabide Zentro bat eratzeko.**

Laugarren, landa garapeneko agenteei Europako politika eta laguntzei buruz informazioa eman die, programak prestatu eta lankideak aurkitzeko behar izan dutena hain zuen. Eta bosgarren, landa eremuen artean esperientzia-trukea burutu du, landari buruzko informazio-Carrefour sarearen bitartez; horrela, Euskadi barruan zein kanpoan hainbat bisita antolatu ditu.

4. 2002 URTERAKO HELBURU NAGUSIAK

2002ko urteari begira, Elkarrekin burutuko dituen iharduerak honako helburu orokor hauek erdiesteko izango dira:

1. Araututako Formakuntza -irizpideak eta bitartekoak-baserriak eta landa eremuetako biztanleak, oro har, landa eremuak eskatzen duenari etengabe egokitu.
2. Etengabeko formazioan eta formazio trinkoan ahaleginak sustatzea eta gehitzea, ikastaro berriak jarritz, sektorearen eta landa eremuetako biztanleen beharrik oinarri hartuta.
3. GEROA Programa: Sustapena - nekazaritzakoa eta nekazaritzakoa ez dena.

Enpresa proiektuak atzematea, nekazaritza sektorekoak eta landa eremuetarako interesgarriak diren beste edozein sektoretakoak; eta hori, 2001 urtean MENDIKOI n prestatutako langileek monitoriza ditzaten.

4. Zerbitzu bat eman, alde batetik lan-orientazio egokia eskaintzeko -gazteak nahiz ikasle-ohiak lan-munduan zirrirturen bat errezago aurki dezaten, enpresatan kolokatuz edota bere kabuz enpresa antolatuz- eta bestetik Formakuntza Arautua jaso duten ikasle-ohiei nahiz lortzen den laneratze mailari urtero jarraipen bat egiteko.

Una vez aprobado el Programa de Desarrollo Rural Sostenible 2000-2006, marco de regulación de las ayudas cofinanciadas por la Unión Europea para el Desarrollo Rural de nuestra Comunidad Autónoma para el período 2000-2006, se ha publicado el Decreto de ayudas EREIN para la Promoción y Desarrollo de las Zonas Rurales del País Vasco. Durante el año 2001 MENDIKOI, S.A, ha gestionado 171 proyectos con arreglo a dicho Programa, lo que ha supuesto la concesión de 6.705.434 euros en subvenciones y una inversión de 19.124.850 euros para el desarrollo de estas zonas.

Coincidiendo en el tiempo, se ha iniciado también la gestión de los fondos provenientes de Fondo Social Europeo, que ha asignado el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social a MENDIKOI, S.A. para el desarrollo de acciones de Animación, Sensibilización y Formación dirigidas a la población del Medio Rural.

Durante este año, se ha desarrollado una labor de preparación de un nuevo Grupo de Acción Local y una Propuesta de Programa para su presentación a la Nueva Iniciativa LEADER Plus.

Además se ha seguido trabajando en el Proyecto de Cooperación Transfronteriza existente en el marco del Fondo Euskadi-Aquitania organizando seminarios sobre temáticas ligadas al Desarrollo Rural en los que han participado agentes de ambas regiones. Y se está apoyando el desarrollo de un trabajo de análisis para la creación de un Centro de Recursos para el Medio Rural.

Para finalizar, el Area de Programas Europeos, también ha proporcionado información sobre Políticas y Ayudas de la Unión Europea a los agentes de Desarrollo Rural, asistiéndoles en la preparación de programas y búsqueda de socios. Otra actividad desarrollada consiste en el intercambio de experiencias entre zonas rurales, llevada a cabo a través de la Red de Carrefours de Información Rural, organizándose varias visitas tanto dentro como fuera de nuestro territorio.

4. OBJETIVOS GENERALES PARA 2002

De cara al próximo ejercicio del 2002, la Sociedad se plantea como objetivos generales a partir de los cuales desarrollar sus actuaciones las siguientes:

1. Adecuar la Formación Reglada permanentemente, en criterios y en medios a los requerimientos de la demanda: sector agrario y población rural.
2. Potenciar e intensificar esfuerzos en Formación Continua y Formación Intensiva, con la incorporación de nuevos cursos en base a las necesidades del sector y de la población rural.
3. Programa GEROA: Promoción agraria y no agraria.

Captación de proyectos empresariales del sector agrario y de cualquier otro sector interesante para el medio rural, para proceder a su monitorización por parte del personal preparado durante el ejercicio 2001 de MENDIKOI.

4. Ofrecer un servicio adecuado de orientación laboral que facilite la inserción de jóvenes y ex-alumnos en el mercado laboral (incorporación a empresas y/o autoempleo), así como realizar un seguimiento anual del grado de inserción laboral y en el sector de los exalumnos de Formación Reglada.

5. Erabateko kalitatea etengabe hobetzea ahalbidetuko duen prozesua ezarri, gehienbat zer nolako aldakuntzari aurre egin beharko diogun kontuan hartuta.

6. Kanpo-sustapenean egiten den lana sendotu, enpresak nahiz inbertsioak herri txikietara erakarriz.

7. Landa eremuaren garapenean lanean dabiltzen beste erakunde eta instituzioekin ahalik eta koordinaziorik handiena lortu, batez ere M.N.E. eta L.G.E-ekin.

8. Landa eremuaren garapen integralean zerikusia duten beste alorretako proiektu eta azterlanak garatu, horien eraketan parte hartu, edo biak:

Herri txikietan etxebizitzaren sustapena.

Landa eremuko lurzoru industrialia.

Landa eremuan informazio-teknologia berrien garapena.

Landa gunek urbanizatzea.

Landa gunek gasifikazioa.

9. MENDIKOIko lau zentroak indartu, horietako bakoitzak MENDIKOIri dagozkion zerbitzuak eskaini ditzen.

10. Europako Elkartetik datozen diru-iturriak eta eratzen diren programei ahalik eta etekin gehien atera:

11. Landa Garapenerako Planekin jarraitzea, EAEko gainontzeko landa eskualdeetan.

12. Jarraitzea Barne Sustapena birorientatzen eta landa eremuetako langileak formatzen, formazio beharrak atzemateko eta behar horiei erantzuteko. (Berpiztu Programa).

13. Erabateko kalitatean egindako lana oinarri hartuta, langileak prestatzea eta birziklatzea, langileak behar berrietara egokitu eta zerbitzu hobea eskaintzeko (Barne Formazio Plana).

14. 2000 urtean hasitako Komunikazio Planeko jarduerekin jarraitzea eta jarduera horietan sakontzea.

15. Programa Transnazioaletan parte-hartzea sustatzea (Interreg.....).

5. Implantar un proceso de mejora de la calidad total, en base a la situación de cambio al que nos encontramos.

6. Reforzar la labor de promoción externa; captación de empresas e inversiones hacia el medio rural.

7. Lograr la máxima coordinación con otros organismos e instituciones implicadas en el desarrollo del medio rural, principalmente A.A.M.-s y A.D.R.-s.

8. Desarrollar y/o participar en la elaboración de estudios y proyectos relacionados con otras áreas que inciden en el desarrollo integral del medio rural:

Vivienda rural.

Suelo industrial rural.

Desarrollo de las nuevas tecnologías de la información en el medio rural.

Urbanización de núcleos rurales.

Gasificación de núcleos rurales.

9. Reforzar los cuatro centros de la Sociedad para que cada uno de ellos pueda ofrecer todos los servicios inherentes de MENDIKOI.

10. Lograr el máximo aprovechamiento de los programas y fuentes de financiación comunitarias.

11. Continuar con los Planes de Desarrollo Rural en el resto de las comarcas rurales de la C.A.E.

12. Continuar con la reorientación de la Promoción Interna, Formación de personal del medio rural, para captar necesidades formativas y dar respuesta a las mismas. (Programa Berpiztu).

13. En base al trabajo de calidad total, preparar y reciclar el personal para ofrecer un mejor servicio adecuándolo a las nuevas necesidades (Plan de Formación Interna).

14. Continuar y profundizar en las actuaciones del Plan de Comunicación iniciado en el 2000.

15. Promover la participación en Programas Transnacionales (Interreg.....).

5. GASTU ETA INBERTSIOEN LURRALDEKAKO SAILKAPENA

Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Insitutaren gastu eta inbertsioak bere lau zentroetan banatzen dira: Arkaute (Araba), Maeztun (Araba) Derion (Bizkaia) eta Fraisoron (Zizurkil-Gipuzkoa).

Jarraian azaltzen zaizkigu gastu eta inbertsioen zenbatekoak eta proportzioak:

Langile-gastuak banatzen dira 917.601 euro Arkauten, 1.164.647 euro Fraisoron, 882.310 euro Derion eta 564.675 euro Maeztun.

5. CLASIFICACIÓN TERRITORIAL DE LOS GASTOS E INVERSIONES

Los gastos e inversiones de Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutoa, S.A., se distribuyen en sus cuatro centros de Arkaute (Araba), Maeztu (Araba), Derio (Bizkaia) y Fraizoro (Zizurkil-Gipuzkoa).

Las cantidades y proporciones de los mismos se especifican a continuación:

